

Ebazpena: R016/2025

Espedientea: E078/2022

Vitoria-Gasteiz, 2025eko maiatzaren 8a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeko kideak honako hauek dira: Violeta Ruiz Almendral, presidentea, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese, bokalak. Eta hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gaia: Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administraziooko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka planteatutako gatazka, zeinaren xedea baita CRUZ zergapekoak (IFZ: 000000001; aurrerantzean, CRUZ andrea) egoitza fiskala non duen zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan tramitatzen ari da, 78/2022 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- CRUZ andreak eta haren senar ROGELIOk (aurrerantzean, ROGELIO jauna), irabazpidezko araubidez ezkondata baitaude, etxebizitza bat erosi zuten Castro Urdialesen (Kantabria), 2016ko azaroaren 28an. Horregatik, ohiko etxebizitza erosteagatik kenkaria aplikatu zuten pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga dela-eta (aurrerantzean PFEZ) 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietan BFAn aurkeztu zituzten autolikidazioetan.

2.- 2019ko ekainean, BFAko Zuzeneko Zergen Zerbitzuak CRUZ andreari errekerimendu batzuk egin zizkion 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldiei dagokienez, Castro Urdialesen kokatutako etxebizitza bere ohiko etxebizitza zela egiazta zezan; izan ere, andre horrek etxebizitza horregatik kenkaria aplikatzen zuen PFEZren autolikidazioetan.

CRUZ andreak errekerimenduei erantzun ez zienez, BFAk aipatu ekitaldietako likidazio-proposamenak egin zituen, autolikidazioetan aplikatutako ohiko etxebizitzagatik kenkariak ezabatuta.

2020ko otsailaren 24an, CRUZ andreak alegazioak aurkeztu zituen jasotako likidazio-proposamenen aurka. Alegazioetan adierazi zuenez, 2017ko uztailan aldatu zen Castro Urdialesko etxebizitzara, eta alderdi hori justifikatzen zuen dokumentazioa aurkeztu zuen.

Hori dela eta, BFAk 2016ko eta 2017ko ekitaldietako kenkaria onartu zuen; 2018ko ekitaldiari zegokion autolikidazioa, berriz, deuseztatu egin zuen, eta ordaindutako zenbatekoak itzuli egin zizkion interesdunari, berandutze-intereseekin batera.

3.- 2022ko maiatzaren 5ean, BFAko Ikuskapen Zuzendariordetzak txostena egin zuen. Txostenaren arabera, CRUZ andrearen egoitza fiskala 2017ko uztailaren 1etik aurrera Kantabrian (Castro Urdiales) zegoen, zenbait ebidentzian oinarrituta (besteak beste: BFAko ikuskaritza andre horrek Muskizen zuen higiezinan —lehengo egoitza fiskalean— pertsonatzea; Castro Urdialesko etxebizitzako argindar-kontsumoari buruzko datuak, banku-txartelen laburpenak, eta Castro Urdialesko etxebizitzari dagokion Jabeen Erkidegoko Administrazioaren ziurtagiri bat).

4.- Txosten hori baliagarria izan zen CRUZ andrearen egoitza fiskala ofizioz aldatzeko proposamenaren zioetarako. Proposamena 2022ko maiatzaren 27an jakinarazi zitzaion ZAEARI.

5.- ZAEAk egoitza fiskala aldatzeko proposamenari ez zion erantzun lau hileko epearen barruan. Epe hori arau hauetan ezarrita dago: Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartua (aurrerantzean Ekonomia Ituna), 43. artikulua; Bederatzi apartatua; eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamendua, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartua (aurrerantzean Arbitraje Batzordearen Araudia), 13. artikulua.

6.- 2022ko urriaren 24an, BFAk gatazka planteatu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, CRUZ andrearen egoitza fiskala 2017ko uztailaren 1etik Kantabrian egon dela deklaratzeko xedez; gatazka prozedura arruntaz tramitatu da. Hori dela eta, bete egin da ZAEAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkezteko eta proposatzeko tramitea; horrekin batera, espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

7.- ZAEAk, hasierako alegaziorik planteatu ez duenez, azken alegazioen tramitean eskaera bat aurkeztu zuen 2024ko apirilaren 1ean, 78/2022 gatazkan amore ematea onartzea erabaki dadila eskatzeko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak gatazka hau ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66. Bat c) artikuluan xedatuaren arabera. Artikulu horren ezartzen denez, Arbitraje Batzordearen funtzioa da:

“c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.”

2.- Zergadunen egoitzari aplikatzekoa den araudia.

Ekonomia Itunaren 43. artikulua Lau apartatuak honako ezartzen du:

“Lau. Ekonomia-itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek egoitza fiskala Euskadin dutela ulertuko da:

a) Ohiko bizilekua Euskadin duten pertsona fisikoak.”

Egoitza fiskala aldatzea Ekonomia Itunaren 43. artikulua Bederatzi apartatuan arautzen da, non hau ezartzen baita:

“Bederatzi. Administrazio interesdunetatik edozeinek eragin ahal izango du zergadunaren egoitza-aldaketa. Administrazio horrek bere proposamena besteari helaraziko dio, jakin beharreko aurrekariak erantsita, eta lau hilabeteko epea emango dio egoitza-aldaketari buruz duen iritzia azaltzeko eta ondoreak zein egunetatik sortuko diren adierazteko. Beste administrazioak proposamenari baietza ematen badio, administrazio eskudunak zergadunari jakinaraziko dio.

Bi administrazioak ados jartzen ez badira ere, prozeduran aurrera jarraitu ahal izango da artikulu honetako Sei apartatuan azaldutako eran.

Egoitza aldatzeko proposamena igorri aurretik, administrazio interesdunak, beste administrazioarekin elkarlanean, eroldaren bidez egiaztatu ahal izango du egoitza fiskala.

Bi administrazioek adostu ondoren edo Arbitraje Batzordearen ebazpenaren ondorioz egoitza ofizios aldatuz gero, aurkako frogarik ezean, era horretan xedatutako egoitza fiskalari ebazpenaren ondorengo hiru urteetan eutsiko zaiola ulertuko da”.

Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13. artikuluan, zerga-administrazioen artean sor litezkeen gatazkak hasteko jarraitu beharreko prozedura arautzen da, eta 2022ko maiatzaren 26tik aurrera, hau adierazten da:

“Tributu-administrazioen artean sustatzen diren gatazketan, araudi honen 14. artikuluan aurreikusitakoetan izan ezik, hasierari dagokionez, honako prozedura honi jarraituko zaio:

(...)

3. Zergadunen zerga-helbideratzeen ondorioz sortzen diren desadostasunetan, Ekonomia Itunaren 43. artikuluko bederatzigarren apartatuan aipatzen den lau hilabeteko epea bi administrazioen aldetik adostasunik izan gabe igarotzen delarik, orduan ez da beharrezko izango artikulua honen 1. eta 2. apartatuetan aipatzen den errekerimendua edo eskumengabetasun-aitorpena egitea gatazka aurkeztu ahal izateko.”

3.- Amore ematea.

Gatazka planteatu eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Kantabriako Ordezkaritza Berezien Zerga Kudeaketako Eskualde Bulegoek zenbait jarduera egin zituzten, BFAk proposatutako egoitza fiskalaren aldaketaren bidez kotasuna egiaztatzeko; jarduera horien ondorioz, 2022ko azaroaren 9ko eta 16ko txostenak egin ziren, hurrenez hurren. Bi txostenetan ondorioztatu zenez, CRUZ andrearen egoitza fiskala, hain zuzen, Kantabrian zegoen 2017ko uztailaz geroztik.

BFAk CRUZ zergapekoarentzat proposatutako egoitza fiskalaren aldaketa onartu egin behar dela ulertuta eta egoitza fiskala 2017ko uztailaren 1az geroztik Kantabrian egotearekin ados zegoela, ZAEAk, 2024ko apirilaren 1ean, 78/2022 gatazkan amore ematea onar zedila eskatu zuen.

Amore ematearen figura ez dago aurreikusita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean (aurrerantzean, APAPEL), zeina aplikagarria baita Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua hara bidaltzen gaituelako funtzionamenduraubideari dagokion guztirako. Ordea, aurreikusita dago atzera egitea, prozedura amaitzeko modu gisa (APAPEL, 84. artikulua), eta Arbitraje Batzorde honek figura hori aplikatu izan du beste prozedura batzuetan, non gatazka planteatu zitzaien administrazioak espresuki amore eman baitzuen administrazio sustatzailearen uzian. Horregatik, arrazoia bera denez, hizpide dugun gatazkan ere aplikatu behar dugu.

Illo horretatik, APAPELaren 94. artikuluan xedatuarekin bat etorritik, Arbitraje Batzorde honek onartu egin behar du ZAEAk eskatu duen amore ematea; izan ere, prozeduran ez dago interesdunik jasota edo ez da interesdunik pertsonatu, ez eta, bereziki, zergapekoa bera ere, eta kontuan hartuta gatazkako gaia ez dela interes orokorrekoa, eta ez dela komenigarria hura bideratzea hura definitu eta argitzeko xedez.

Hori dela-eta, ebazpen hau ematen da, APAPELaren 21.1 artikuluan aipatzen diren erabakiekin.

Horren ondorioz, bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratu da, eta horrek ekarri du Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen aurrean bideratutako prozeduraren xedea gerora desagertzea, eta, horrenbestez, artxibatzea.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

- 1.- Onartzea Zerga Administrazioko Estatu Agentziak amore ematea Bizkaiko Foru Aldundiak planteatutako 78/2022 gatazkan.
- 2.- 78/2022 gatazka artxibatzea, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak amore ematearen ondoriozko prozeduraren xedea gerora desagertu delako.
- 3.- Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta CRUZ andreaki jakinaraztea.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.